

LUIS BARAIAZARRAREKIN HIZKETALDIA

Karmeldarren Ordenan pertsona ospetsuak izan dira, beti haize-kontra, euskal kulturaren alde lan eskerga egin dutenak. Hona argi distiratsuz agertzen zaizkigun izen batzuk: Jose Antonio Arakistain, Bartolome Santa Teresa, Gabirel Jauregi, Agustin Atutxa, Emiliano Barandiaran, Hipolito Larrakoetxea, Santi Onaindia, Lino Akesolo, Luis Arostegi etab. Gaur egun, Patxi Uribarren, Luis Baraiazarra eta Julen Urkiza agertzen zaizkigu euskal letren goi-goian. Hirurak Euskaltzaindiko kideak. Uribarren, euskaltzain osoa; Baraiazarra eta Urkiza, ohorezko euskaltzainak. Hirurak bizi dira une honetan Markina-Xemeingo komentuan, alde guztietatik euskal kulturaren haizea hartzen den ingurunean. Markina-Xemeingo komunitatea da, gaur egun, gure Ordenan euskal kultura lantzen eta zabaltzen duen bakarra. Markina-Xemeingo komentua bihurtu da Karmeloko 21. mendeko gordeleku euskaldun...

Oraingoan, Luis Baraiazarra idazle eta poetarengana hurbildu nahi izan dut, san Joan Gurutzekoren idazlan guztiak euskaraz argitara eman berri baita.

Honek euskal kulturaren alde eginiko beste hainbat ekarpenen artean, goi-mailako itzultzaile legez buruturiko obra enblematikoen itzulpenak ageri dira, esaterako, Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoaren dokumentu guztiak eta, batez ere, kristau-espiritualitateko hiru maisu-maistren idazlan guztien itzulpena: Teresa Avilakoarena, Joan Gurutzekorena eta Tere-

sa Lisieuxkoarena. Sekulako lana. Aurrerantzean, Eliza Katolikoaren hiru Eliz Irakasle goresgarri hauen idazlanak euskaraz irakurri eta gozatu ahal izango ditugu.

Egoki begitandu zait Luisekin hizketaldi bat izatea; ohi bezala, era atsegin eta xumez hartu nau berak. Hiru mistiko karmeldarren idazlan guztiak euskarara itzultzea bihotzez eskertu ondoren, haietaz galdera batzuk egiten ausartu naiz.

–**Anitua**: Nola sortu zen Eliza Katolikoaren hiru Eliz Irakasle hauen idazlan guztiak euskarara itzultzeko asmo zoriontsua?

–**Luis**: Teresa Lisiexkoaren idazlan guztiak itzultzea izan zen abiapuntua. Gogoan izango duzu, ziur asko, gu biok ginen, eta Karmel aldizkariko eta Karmel Sortako lemaizain Julien Urkiza, hirugarrena. Urregaraiko (Santa Eufemiako) haize garbia hartzen genuen bitartean, goi-argiak edo argitu gintuen eta santa Teresatxoren heriotzaren mendeurrena hurbil zela-eta, haren idazlan guztiak euskarara itzultzeko asmoa piztu zitzaigun. Orduan, oraindik, ideia lauso zehaztu gabea zen, baina garbi genuen talde-lana izango zela.

Behin, santa Teresa Avilakoaren obrak itzultzen ari nintze-la, honela erantzun nion, bide batez santa Teresatxoren itzulpenaz eginiko galderari:

“Beste era batera egin genuen hura. Askoren artean, erlijioso eta laikoen artean, Hegoaldeko eta Iparraldekoen artean, zamarik astunena neure gain izan banuen ere. Bestalde, haren obrak txikiak dira Teresa Avilakoaren obren ondoan; gainera, oraingoan bakar-bakarrik aurre egin behar izan diot itzulpenari. Santa Teresa Lisieuxkoaren Autobiografia eta Olerkiak pozpozik gogoratzen ditut. Haren gainerako idazkiak orraztea, zuzentzea eta batasuna ematea pixka bat zailago egin zitzaidan, baina ez horrenbeste. Haren heriotzaren mendeurreneko urtea (1997) eta Eliz Irakasle izendatu zutenekoa berariazko

eraz gogoratzen ditut. Iparraldeko eta Hegoaldeko euskaltza-leok bat egin genuen Teresa Lisieuxkoa omentzean eta bidaia erlijioso-kulturala eratu zen Alençon eta Lisieuxera. Hori gauza polit-polita izan zen. Haren estiloa eta kontatzeko era, beraren nortasun eta pertsona diren bezala, gozoa, samurra, argia eta hunkigarriak dira”.

Beraz, bi Teresen obrak efemerideen harian jaio ziren euskarara: Lisieuxkoarena, beraren heriotzaren 1. mendeurrenean, eta Avilakoarena, beraren jaiozaren 5. mendeurrenean. Teresa Avilakoaren obrak itzultzeari banion beldur pixka bat, lan handi-handia baitzen. Horregatik esan ohi nuen “nigan luzaro izan den asmoa da; hasieran, ez erabakia hartzera eramango ninduen asmo sendo legez, kontzientzian piztu eta itzali jardun ondoren, gehiago seinalerik eman gabe geratzen zen argitxo bat legez baizik”. Baina, azkenik, mendeurren horretan, hitzalditxo, jardunaldi eta iragankorrak diren ekintzez harago, gure Erreformaren Amaren omenez, betiko geratuko zen esku-erakutsia berari eta euskarari egitearren, idazlan guztiak euskaratzeari ekin nion, Teresak berak behin eta berriro esan ohi zuen bezala, erabaki sendoz eta finkoz.

“Joan Gurutzekoren idazlan guztiei ekiteko, ez dugu inolako urtemugarik izan bultzaka ez zirika. Oraingoan, bi Teresen (Lisieuxkoaren eta Avilakoaren) idazlan guztiak argia ikusiak izanik, Joan Gurutzekoren hutsunea genuen euskal letretan. Horrek min ematen zigun eta dei egiten barruan: ez al gara gauza izango mistiko eta poeta handi honen oihanean barneratzeko?” Hala diogu sarrera orokorrean eta beheaxeago, honela: “Euskarari egiten zaion ekarpena da, nire ustez, gako nagusia: barne-munduaz, psikologiaz, barruan gertatzen denaz, Jainko-maitasunaz (azken batean, giza maitasunaz) inork ez du hark bezain ongi, gozo eta dotore idatzi. Hori guztiori euskarara ekartzea ezin ederragoa litzateke. Barne-altxor ho-

rren bila saiatu gara geure indarrez eta argiz eta Espiritu Santuari eskatuz, bila genbiltzan altxorra oso preziatua baitzen”.

–**Anitua:** Zeintzuk izan dira hauetako bakoitzaren itzulpe-nean aurkitu dituzun aparteko zailtasunak?

–**Luis:** Santa Teresatxoren kasuan, eskatu zitzaidanez, poesiak itzultzeari ekin nion lehenik. Originaleko sentimendu, irudi, pentsamenduak euskaraz leialki eta gozotasunez islatzen saiatu nintzen, metrika aldetik libre antzean, baina hoskidetasuna albait ondoen zainduz. Eskuizkribu autobiografikoak euskaraz jartzea beherera, erraz, egin zitzaidan; honetan, gainerako obren itzulpenetan ez bezala, bere estiloan, baina eus-kara onean eginiko eta argitaratu gabeko eskuizkribuari begi-ratzen nion, sarri, begi-bazterrez. A. Nartziso (Jose Antonio Garate Mugika) karmeldarrak eginiko itzulpenari. Teresatxo-ren gainerako idazkiak orraztea, zuzentzea eta batasuna emate-a pixka bat zailago egin zitzaidan, gorago adierazi dudanez.

Santa Teresa Avilakoarenean, haren estiloagatik batez ere, luma ez zebilen hain erraz. Darabilen gaia bera da zaila, batez ere obra batzuetan darabilena, esperientzia mistikoak, Jainkoaren presentzia ariman eta harekiko harreman pertsonalak, barneko ispilura begira, kontzientzian gertatzen zitzaionera begira, kontatuak direlako. Hori guztia adieraztea berarentzat ere zaila izanik, are zailagoa itzultzailearentzat. Horrez gainera, Santa Teresaren estiloa nahiko korapilatsu eta bihurria da: XVI. mendeko gaztelera, esamoldez aberatsa eta, ziur asko, ahozko gaztelaren ekarri ugaria erakusten duena. Esamolde horiek, kalkoetan erori gabe eta haien pareko euskarazko esamoldeak sortuz, itzuli behar dira, eta hori nahiko zaila da eta hizkuntzaren erabileran trebetasuna eskatzen duena.

San Joan Gurutzekori dagokionez, santa Teresa Avilakoaz esanikoa eta areago esan dezakegu, darabilen gaiari bagagozkio. Barruko bizitzaz ari da une oro, barne-munduaz, psikolo-

giaz, barruan gertatzen denaz, Jainko-maitasunaz. Hori guztio-ri, originalean bezain ongi, gozo eta bikain euskarara ekar-tzea izan da nire ahalegina. Gainera, poesia itzultzerakoan, Joan Gurutzekoren obra enblematikoa izanik, ia gehiegizkoa izan da nire jomuga, originalaren metrikari eta errimen konbi-nazio berberetan euskarara itzultzeko ahaleaginean.

–**Anitua:** Zenbat denbora eman duzu itzulpen hauek buru-tzen?

–**Luis:** Denboraren zurrunbiloan murgildurik gaude eta gal-dera hori egin gabeko elkarrizketarik nekez izan ohi da. Nik ez dut maite gauzak denboraz neurtzea. Uste dut emaitza dela begiratu behar dena, eta ez hainbeste hartan eman den den-bora. Efemerideen harian jaio ziren obretan, presa, estresa, denboraren presioa beti izan dugu estutzen eta zuk horri ihes egin nahi izan arren, aurrean aurkituko duzu akuilariren bat zirika. Ez dut kontu zehatzik egin, baina hiru urte eta erdi in-guru behar izango nituen itzulpenetako bakoitza burutzeko.

–**Anitua:** Zeintzuk dira Teresa Avilakoaren, Joan Gurutze-koren eta Teresa Lisieuxkoaren pentsamenduaren ildo nagu-siak?

–**Luis:** Galdera horren harian, haien pentsamenduaren mui-na aurkitu nahian, hirurak ikusi ditut Jainko-maitasunak har-tuak eta era berean Jainkoaz guztiz maiteminduak, baina mai-temin hori agertzeko eta adierazteko eran, bakoitzak bere era originala du. Santa Teresa Avilakoak Jainkoaren presentzia modu miragarri eta ezohikoan sumatzen du bere baitan eta, aitor-entzuleen agindua betez, barne-ispilu horretara begira kontatzen du albait zehatzen kontzientzian gertatzen zaiona. Hori batez ere *Bizitza Liburuan* egiten du; eta obra horretan, barne-begiratze horretako esperientzia kontatzean, otoitz-tra-tatu forma duen zati luze samarra tartekatzen du, gero, *Perfek-zio Bidean* eta *Barne Gazteluan* garatuko duena. Beraz, bere

barne-esperientziatik abiatuz, otoitz-maistra eta gidari bikain bihurtzen da bere alaba espiritualentzat eta gainerako pertsona jainkozaleentzat. Otoitza, ez bekatuagatik ez beste ezergatik, ez uzteko aholkua ematen du. Aingura sendo horri erabaki osoz eta finkoz heltzeko gomendioa. Kristoren Gizatasuna irudikatzea proposatzen du otoitzerako baliabidetzat. Debozioen artean, bereziki, san Jose aintzatsua du bihotzean sartua.

Hona *Karmel* 2020-1ean idazten genuena: “San Joan Gurutzekok, egiaz bizitza espiritualari ekin nahi dionari, ez dio bide gozorik ez errazik aurrean jartzen. Alderantziz: aldapa latza igotzeko, gau iluna igarotzeko, Jainkoa ez den guztiari uko egitea, ezerezte, hustutzea, biluztea, itsatsiz doakigun lohiez garbitzea... Baina, itxura guztien kontra, ez da ezezkoa haren doktrina. Lehen aldian bai, baina gero baiezkoa da dena. Asmoz, hasieratik da baiezkoa, ederra, itxaropentsua, Maitearen bila abiatzen delako. Baina Maitea ezkutatu egiten zaio: *Non ezkutatu zera, / ene maitea, ni utzirik saminez? / Alde orein antzera / niri zauri eginez; / bila irten eta joana zinen ibes.*

Bilaketa honetako gorabeherak, aldiak eta aldarteak agertzen dizkigu kantetan eta prosazko azalpenetan barrena, eta Jainkoak arimarekin darabilen irakasbidea, pedagogia, ezin hobeki azaltzen”.

Maitearen bila ibiltzea da san Joan Gurutzekoren pentsamenduaren muina; hasieran, hura ez den guztitik ezereztuz, hustuz, biluziz eta fedearen ilunean aurrera eginez, ezereztasunetik guztira iristeko, fedearen ilunpetatik Jainkoaren argi betera. Debozioen artean, Gurutziltzatua ageri da behin eta berriro, baina Andre Maria ere haurtzarotik darama bihotzean.

Santa Teresa Lisieuxkoak pentsamendu guztiz originala du: bere burua haur txiki eta ahul eginik, Jainko handi, onbera eta errukitsuaren besoetan etzaten da. Haurraren bidetxoaren

doktrina garatzen du. Horretarako, gehienetan, irudiez baliatzen da. *B Eskuizkribuan*, esaterako, eguzkiaren eta txoritxoaren irudiak darabiltza, testua otoitz legez eraturik:

“Nik lumatxa leun batez soilik jantzitako txoritxo ahul baten antzera ikusten dut neure burua. Ez naiz arranoa; *begiak* eta *bibotza* ditut soilik harenak, ezin txikiagoa naizen arren, tinko begiratzera ausartzen naiz Jainko-Eguzkiari, Maitasun-Eguzkiari, eta nire bihotzak Arranoaren gurari guztiak sentitzen ditu bere baitan... Txoritxoak hegan egin nahi luke bere begiak liluratzen dituen Eguzki distiratsu horrenganantz; bere anaia arranoak imitatu nahi lituzke, Hirutasun Santuaren jainko-sugarrraino igotzen ikusten baititu... Ai! Bere hego *txikiak* astintzea da hark egin dezakeen guztia, baina hegan egitea ez dago haren ahal izate txikiaren mende. Zertan amaituko ote da? Penaz hilko ote da bere burua hain ezindua ikusirik?... Ez horixe! Txoritxo ez da nahigabetu ere egingo. Buru-uzte ausartaz bere Jainko-Eguzkiari begira gelditu nahi du; ez luke jakingo ezerk ere hura beldurtzen, ez haizeak eta ezta euriak ere. Eta hodei ilunak Maitasun-Astroa estaltzera etorriko balira, txoritxo ez litzateke lekuz aldatuko; badaki hodeietatik harantz, bere Eguzkiak argi egiten duela beti; haren argitasuna ez litzatekeela unetxo batean ere ilunduko. Batzuetan, egia da, txoritxo ekaitzak erasotua aurkitzen da; inguratzen duten hodeiak besterik ez dagoela sinistu uste du. Orduantxe da *izaki gaixo* eta ahularentzat *poztasun oso-osoaren* unea. Bai zoriona harentzat hala ere han gelditzea, bere fedeari ezkutatzen zaion argi ikusezinean begiak finkatzea!!!!... Jesus, orain arte, ulertzen dut txoritxoari diozun maitasuna, ez baitu zure ondotik alde egiten...

Baina nik badakit, eta zuk ere badakizu, batzuetan sorkari txiki inperfektua, bere lekuan gelditu arren (hau da, Eguzkiaren izpien mende), bere zeregin bakarretik aldendu egiten da pixka bat, garautxo bat hartzen du ezker eta eskuinean, har

txiki baten atzetik joaten da... Gero, ur-potxingotxo bat aurkiturik, bertan *bustitzen ditu* bere luma doi-doi eratuak. Gogo-ko duen lore bat ikusten du, eta haren izpiritu nimiñoa lorea-rekin jostatzen da... Hitz batez, arranoak bezala hegan egin ezinik, txoritxo gaixoa lurreko huskerietan aritzen da oraindik. Hala ere, bere okerkeria guztien ondoren, bere mixeriengatik negar egiteko eta damuz hiltzeko bazter batean ezkutatu beharrean, txoritxo bere Eguzki maitearengana itzultzen da, bere hegotxo *bustiak* haren izpi ongileetara jarri, eta intziri egiten du enarak bezala. Eta bere kantu gozoan zehatz-mehatz esaten, kontatzen ditu bere desleialtasunak, bere buru-uzte ausartegian pentsatuz, honela eskumen handiagoa bereganatuko zuela, hobeki erakarriko zuela zintzoei ez baina bekatariei dei egitera etorri zen Haren maitasuna... Astro Gurgarriak bere sorkaritxoaren txorrotzio negartiei entzungor eginenez jarraitzen badu, *ezkutaturik* jarraitzen badu... ba, orduan sorkaritxo bustirik geratzen da, ontzat dauka hotzak harturik egotea, eta areago oraindik, poztu egiten da berak, dena dela, merezia duen sufrimendu honengatik...

Oi, Jesus, bai zoriontsu dela zure *txoritxoahul* eta *txiki* izanik! Zer gertatuko ote litzaioke handia balitz?... Ez luke sekula ere zure aurrean agertzeko, zure aurrean *erdi lo egoteko* ausardiarik izango... Bai, hau ere txoritxoaren ahultasun bat da, Jainko-Eguzkiari tinko begiratu nahi dionean, eta hodeiek izpi bat bera ere ikusten uzten ez diotenean; bere gogoz kontra, itxi egiten dira haren begitxoak, haren burutxo hegapean gorde, eta gaixoa loak hartzen du, beti ere bere Astro maiteari tinko begira dagoelakoan. Esnatzean ez da deskontsolatzen; haren bihoztxo bakean geratzen da. Bere *maitasun-Ofizioari* ekiten dio berriro. Aingeru eta Santuei dei egiten die, arranoak bezala, bere gurarien jomuga den Sugar kiskalgarriarengana hegaldatzen diren haiei. Eta arranoek, euren anaiatxoaz errukiturik, babestu, zaindu egiten dute, eta ihes eragiten dieten irentsi nahi luketen saiei. Txoritxo ez da deabruen irudi

diren saien beldur. Ez da haien *barrapakin* izatekoa, Maitasun-Eguzkiaren erdian ikusten duen *Arranoarena* izatekoa baizik.

Oi Jainko-Hitz hori! Zu zara nik maite dudan Arrano gurgaria, ni *erakartzen nauena*! Zu zara erbesteko lurrera amilduz, sufritu eta hiltzea nahi izan duena, arimak Hirutasun Dohatsuaren betiko Sutearen altzoraino *erakartzeko*. Zu zara, zeure betiko bizileku izango den ezin iritsizko Argirantz igorik, oraindik negarrezko haranean, ostia zuri baten irudipean gorderik jarraitzen duena... Arrano Betiereko hori, zeure jainko-sustantziaz janaritu nahi nauzu ni, izaki gaixo hau, zure jainko-begiradak uneoro bizia emango ez balit, ezerezero itzuliko nintzatekeen hau... Oi, Jesus, utz iezadazu esaten neure eskeronaren gainezkaldian zure maitasuna zorotasuneraino iristen dela!... Nola nahi duzu, bada, zorotasun hau ikusirik, nire bihotza zureganantz ez abiatzea? Nola ezarri mugak nire konfiantzari?... Ai! Badakit santuek ere zuregatik *zorakeriak* egin zituztela; gauza handiak egin zituzten, *arranoak* ziren-eta...

Jesus, ni txikiegia naiz gauza handirik egiteko..., eta nire *zorakeria* zure maitasunak oparitzat har nazan itxarotean datza... Nire *zorakeria* neure anaia arranoei, Maitasun-Eguzkirantz Jainko-Arrano berberaren hegoekin hegan egitea eskatzean datza...

Zeuk nahi duzun arte, oi ene Maitea!, zure txoritxo indarrik eta hegorik gabe geldituko da. Begiak zuregan josirik di-tuela jarraituko du beti; zure jainko-begiradaz *lihuratua* izan nahi luke; zure Maitasunaren *barrapakin* bihurtu nahi luke... Egunen batean, hala itxaroten dut, Arrano Gurgarri hori, etorriko zara zeure txoritxoaren bila; eta harekin Maitasunaren Sugarreraino hegaldatuz, beti-betiko hondoratuko duzu bera opari gisa eskaini den Maitasun horren leize gorian”.

C Eskuizkribuan, berriz, igogailuaren irudia darabil, ideia bera adierazteko:

“Zuk badakizu, ene Ama, beti nahi izan dut santa izatea. Baina ai! Santuekin parez pare jarri naizenean, haien eta nire artean, bere tontorra zeruan galtzen zaion mendi baten eta ibiltarien oinek zapaltzen duten hondar-ale baten artean dagoen alde berbera dagoela egiaztatu dut. Ustea galdu beharrean, esan nuen neure baitan: Jainko Onak ezin dezake eman bete ezineko guraririk; beraz, neure txikitasuna gorabehera, izan nezake jomuga santutasuna. Haztea ezinezkoa zait. Den bezalakoa onartu behar dut neure burua, bere akats guztiekin. Baina bidetxo oso zuzenetik, oso laburretik zerura joateko era aurkitu nahi dut; bidetxo berri-berri batetik. Asmakuntzen mendean gaude. Orain ez da eskailera baten mailak igotzeko nekerik hartu behar; aberatsen etxeetan igogailuak ordezkatzeko du hori, alde ederraz gainera. Horrela, nik igogailu bat aurkitu nahi nuke Jesusenganaino igotzeko, txikiegia bainaiz santutasunaren eskailera latza igotzeko.

Orduan Liburu Santuetan, neure gogoaren helburua den igogailuaren seinale bila aritu naiz, eta betiko Jakinduriaren ahotik irtendako hitz hauek irakurri ditut: Inor *txiki-txikia* bada, betor niregana. Beraz, neuk bilatzen nuena aurkitu dudalakoa etorri naiz; eta zeure deiari erantzuten dion txikitxoarekin zer egingo zenukeen jakin nahirik, oi ene Jainko!, neure bilaketetan aurrera egin dut, eta hona hemen aurkitu dudana: -Ama batek bere umeari xerak egiten dizkionez, nik ere kontsolatuko zaituztet, neure altzoan eramango zaituztet eta neure belaun gainetan kulunkatuko! Ai, nire arima poztera sekula ez da hitz samurragorik, gozoagorik etorri! Zerura jaso behar nauen igogailua zure besoak dira, oi Jesus! Horregatik ez dut hazi beharrik; alderantziz, txiki gelditu beharra dut; geroago eta txikiago egitea. Oi ene Jainko!, gainditu duzu nire itxaropena, eta nik zure maitasun-egintzak kanta nahi ditut: “Gazte-

tarik irakatsi didazu, eta zure egintza miragarriak iragarri ditut gaur arte. Adin handienera iritsi arte haiek aldarrikatzeari ekingo diot. Sal. LXX”.

Teresatxoren debozioen artean, Jesus Haurra, Aurpegi Santua eta Andre Maria daude.

–**Anitua**: Kristau-espiritualitatearen izar hauek zuzenki eza-gutu nahi lituzkeenari, nondik irakurtzen hastea gomendatuko zenioke?

–**Luis**: Teresa Avilakoarenean, beronen *Bizitza Liburutik* hastea gomendatuko nioke; Teresa Lisieuxkoarenean, *A Eskuizkributik* hastea; Joan Gurutzekoren obren artean, aukera ona litzateke, beharbada, *Argi eta maitasun esaeretatik* abiatzea; edota, santu honen espiritualitatearen muina hobeki eza-gutzeko, zuzenki *Kantu Espiritualaren* poema eta azalpenera salto egitea.

–**Anitua**: Ekar ezazu gogora bakoitzaren esaldi apartekoren bat, barruan zirrara eragin dizunetakoren bat.

–**Luis**: “gogoetazko otoitza ez da besterik, nire iritziz, maite gaituela dakigunarekin bakarrean sarri egonez adiskide-harremanetan jardutea baino” (Santa Teresa Avilakoa, *Bizitza* 8, 5)

“Ez asaldatu, / ez ikaratu, / dena igarotzen, / Jainkoa ez da aldatzen; / pazientziak / dena du lortzen. / Jainkoa duenak / ez du ezer falta, / Bera aski baita” (Santa Teresa Avilakoa, *Olerkiak* 9).

“Orain, bide horretatik joan eta helmugara iritsi arte gelditu nahi ez dutenengana itzuliz, bizi-ur hau edatera iristea baita, nola hasi behar duten oso garrantzitsua dela diot, eta hor da-goela dena: haraino iritsi arte ez gelditzeko erabaki handi eta adoretuan, datorrena datorrela, gertatuak gertatu, nekeak neke, marmarka jardun dezanak jardun dezala, bertaraino iritsi nahiz ez, nahiz eta bide erdian hil behar edota bidean dauden

nekeak eramateko kemenik ez izan, nahiz eta mundua hondatu” (Santa Teresa Avilakoa, *Bidea*, 21, 2).

“Arratsean maitasunean aztertuko zaituzte” (Joan Gurutzeko, *Argi eta maitasun esaerak*, 60).

“Jainkoaren begiratzea maitatzea da” (Joan Gurutzeko, *Kantu Espirituala*, 31, 8 BK).

“Hemen bera Jainkoarekin gauza bat bera egina egonik, nolabait Jainko da parte-hartze bidez; ez beste bizitzan den bezain betean, esan genuenez, baina bai Jainkoaren itzala bezala” (Joan Gurutzeko, *Maitasun Gar bizia*, 3. kanta, 78).

“Neure Ama den Elizaren bihotzean, ni Maitasuna izango naiz!” (Santa Teresa Lisieuxkoa, *B Eskuizkribua*, 184. or.).

“Misiolari izan nahi nuke, ez urte batzuetan soilik; munduaren sorreratik hasita izan nahiko nukeen eta hala iraun mendeen azkenera arte” (Santa Teresa Lisieuxkoa, *B Eskuizkribua*, 182. or.).

“Ezbairik gabe, hiru pribilegio hauetan datza nire bokazioa: Karmeldar, Emazte eta Ama izatean. Hala ere beste bokazio batzuk sumatzen ditut neure baitan: gerrari izateko bokazioa sentitzen dut, Apaiz, Apostolu, doktore, martiri izatekoa. Hitz batez, Jesus, zure alde egintzarik heroikoenak zertzeko beharra, irrika sumatzen dut” (Santa Teresa Lisieuxkoa, *B Eskuizkribua*, 182. or.).

–**Anitua**: Gontzal Mendibilek, idazlan batean, “poeten poeta” zarela dio; Joan Gurutzekoren poema bat, Teresa Avilakoaren beste bat eta Teresa Lisieuxkoaren beste bat hauta deza zula nahiko nuke.

–**Luis**: Bakoitzarenetik bat hautatzea nahiko zail gerta daiteke. Joan Gurutzekoren poema ezin ederragoen artean, Kantu Espirituala osorik hautatuko nuke, hau da, *B Kantuaren* 40 ahapaldiak.

Teresa Avilakoarenetik, bi lehenengoak: 1.a: *Neugan bizi gabe biziz*. Eta 2.a: *Zurea naiz*.

Teresa Lisieuxkoarenetik, beste bi hauek: 1.a: *Zelinaren Kanta*. Eta 2.a: *Maitasunez bizi*.

–**Anitua**: Zer gertatu zen Madrilén Espainiako Kultura Ministerioak santa Teresaren Idazlan guztiak obrari itzulpen onenaren saria eman eta gero epaia baliogabetu zutenean?

–**Luis**: Nahiko itsusia izan zen hura. Eman eta kendu... Euskaraz bada esapide polit bat hori adierazteko: *tori eta tati egin*. Aurkezturik eta lehiarako onarturik zeuden obren zerrenda bat bidali zidaten niri eta han Santa Teresaren Idazlan guztiak ere agertzen zen onarturikoen artean; beste obra batzuen izenburuak ere agertzen ziren, baldintzak betetzen ez zituztelako baztertuak zeudela adieraziz.

Dirudienez, Andres Urrutia Euskaltzainburuak, bere aurkezpenean, erdi liluraturik utzi zituen epaimahaikide gehienak eta ia aho batez eman zuten gure itzulpenaren aldeko epaia. Baina bazen bat edo beste, oinarriei heldurik, epaia atzera botatzekotan zena. Oinarrietan jartzen omen zuen, atzerriko hizkuntza batetik Penintsulako hizkuntzetakoren batera itzulua izan behar zuela, eta Santa Teresa Penintsulako hizkuntza batetik (gaztelaniatik) bertako beste hizkuntza batera (euskarara) itzulua zen... Gaur egun, Euskaltzaindiak gora jo ondoren, oinarrietako murrizketa hori kenduta dago, baina orduan indarrean zegoen. Beraiek eginiko okerra guri ordainarazi ziguten.

–**Anitua**: Geroari begira, zer asmo bete nahiko zenuke?

–**Luis**: Elkarrizketa honetan aipatzen diren erako obra handiei dagokienez, nik neure barruan, ekin diot honezkero *Nunc dimittis* kantikari. Markina-Xemeingo komunitatean idazkari eta kronikari naizenez gero, aktak eta kronikak, liturgiako eta Arrate Irratiko mezetarako testutxoak, etxeko

beste zeregintxoak... izango dira lehentasuna dutenak aurretzean; eta olerki eta bertsoek, *Karmel* Aldizkarirako idazlanek eta horrelako lan xumeek beteko dute gainerako nire astia.

Bete bitez zure asmoak. Eskerrik asko hain txeratsu hartu eta pazientzia handiz erantzuteagatik. *Karmel* aldizkariaren irakurleek ondo merezia duzun esker ona agertuko dizue.

Anitua